

**EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA****LEHENDAKARIAREN HITZALDIA****Lehendakaritza, 2013ko ekainaren 28an.**

Egunon.

Atsegin handiz ematen dizuet ongi etorria Lehendakaritzaren egoitza honetara, Euskararen Aholku Batzordeak legealdi honetan egiten duen lehen osoko bilkurarako.

Bereziki pozgarria da niretzat gaur hona bilduta garbi adierazten duzuen asmoa, zuetariko bakoitzaren ezagutza eta lankidetzarako prestutasuna euskara biziberritzeko lanaren mesedetan jartzekoa.

Itxaropenez betetzen nau, gure gizarteak Euskararen Aholku Batzorde honengandik emaitza oparoak espero ditzakeela jakiteak.

Gaur, batzordeburu gisa, gogoan ditut ni neu batzordekide izan nintzeneko denborak eta lanak. Pozarren itzultzen naiz gaur, eginahala zuekin partekatzerara.

Euskararen Erabilera Normalizatzeko 1982ko Legean du Euskararen Aholku Batzorde honek lehen erroa.

Garai eta molde ezberdinetara egokituz, gaur arte iritsi da, osasuntsu eta lanerako kemenez betea.

Luzea da Euskararen Aholku Batzordearen lanetan oinarri, babes eta bultzada bilatu duten ekimen erabakigarrien zerrenda:

- Aurren-aurrenik, aipamen berezia merezi du, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak. Batzorde honek eta Gobernu Kontseiluak 1998an onetsitakoak,

euskararen normalizazioa garapen iraunkorraren bidean jarri zuen marko zabala.

- Beste mugari garbi bat Euskara 21 gogoeta prozesua izan zen, 2008-2009an gauzatua eta XXI. mende hasierako hizkuntza politikaren oinarriak zehaztu eta proposatu zituena.

Prozesu eredugarria izan zen, hizkuntza politikaren inguruan mamitu den adostasunik zabalena lortu duen gogoeta gunea, 1982ko legearen eta hezkuntzako hizkuntz ereduaren ingurukoekin batera.

Legebiltzarrak berak ere onetsi zituen Euskara 21en ondorioak.

Gaur, zuen aurrean argiro esan nahi dut: Euskara 21 prozesutik sorturiko oinarriak, printzipioak, lehentasun eta lan ildo nagusiak dira gaurko Gobernuaren iparrorratza, hizkuntza politikari dagokionez.

- Eta ibilbide horretan, bada gaurko bilkura hau eta Euskararen Aholku Batzordearen aurreko lanak zuzen-zuzenean lotzen dituen katebegi garrantzitsu bat: Euskara Sustatzeko Ekintza Plana, Batzorde honek 2012an onetsitakoa.

Labur jardun beharrez zeharka bada ere, ez nituzke aipamenik gabe utzi nahi, hainbat esparrutan Batzorde honek eskainitako orientabide, irizpide eta jarraibideak.

Hor daude helduen euskalduntzearen etorkizunari buruz egindako gogoeta; alor sozioekonomikoan LanHitz programa markoaren muinean bilduko ziren oinarritzko irizpideak; edota euskarazko hedabideak eta euskara hedabideetan sustatzeko gogoeta emankorra.

Edo, nola ez, euskara eta informaziorako eta komunikaziorako teknologiak lotzeko ahaleginaren inguruko hausnarketa; edota terminologia eta toponimiaren eremuetan eginiko urteetako lan eskergera.

Mundu zabalean eredu gisa ikusten den hizkuntza biziberritzeko prozesua bideratzen ari gara.

Gutariko bakoitzaren eta, oro har, euskal gizartearen ahaleginaren emaitza da hori. Bereziki adostasunak lantzeko eskuzabaltasunari esker lortua.

Aurrena geure buruari, geure gizarteari, eta, bide batez, munduari proposatzen diegun eredia, erantzukizun partekatuaren gainean eraikitakoa da.

Eredu horretan, denok gara beharrezko.

Nor bere hautu politiko-ideologikotik eta nor bere hizkuntza aukera pertsonaletik gatoz bilgune honetara.

Baina elkarrekin ikasitakoaren balioa inola ere bazterrean utzi gabe.

Aitzitik, badakigu, non kokatu behar ditugun euskara biziberritzeko lanean erabakigarriak diren faktoreak: lege estatus nahikoa, hizkuntza politika eraginkorra eta bitartekoez hornitua, eta herritarren borondate eta atxikimendua.

Azken hau da erabakigarriena. Jakina, gure gogoia da herritarren borondateak eraman gaitzala etorkizunean ere euskararekiko atxikimendua sendotzera eta hedatzera.

Badakigu, hein berean, adostasuna dela hizkuntza politika publikoen oinarririk sendoena. Badakigu, nola ez, gizartearen kohesioaren partida hizkuntza bizikidetzaren zelaian ere jokutzen dela.

Helburu nagusi horretarako bidean, Eusko Jaurlaritzak garbi ikusten du euskararen erabilera zabaltzeko lanean gizarte osoak eta, beraz, ordezkari politiko guztiok dugula bai eginkizunik, baita erantzukizunik ere.

Bi hizkuntza dituen eta izan nahi dituen gizarte baten lehen ardura bi hizkuntza horien arteko oreka lortzea baita.

Gaur eguneko elebitasuna desorekatua da, bi hizkuntza ofizialen arteko orekarantz eramango gaituen bidea egiten jarraitu behar dugu.

Hizkuntza kontuan ere egiazko aukera-berdintasuna bermatu behar dugu. Azken batean, norberaren hizkuntza aukera praktikan egiazki errespetatua izan dadin etengabe urrats sendoak ematen dituen euskal gizartea nahi dugu.

Horretarako, herritar elebidunez osaturiko gizarte elebidun baten bidean jarraitu behar dugu, tinko eta ausardia eta zuhurtasuna proportzio egokian uztartuz.

Izan dezagun beti gogoan handia dela Euskararen Aholku Batzordeak adostasun hori gauzatzen laguntzeko egin dezakeen ekarpena.

Hizkuntza politikak, baliozkoa izateko, bi irizpide zaindu behar ditu estu-estuan: aurrerantz egiteko baliagarria izatea, eta gizartearen gehiengo zabalak onartua izatea.

Egungo gizarte globalizatuan, indar ekonomiko, kultural eta mediatiko handirik ez duten hizkuntzak biziberritzea ezinezkoa da herritarren borondaterik gabe.

Baina herritarren borondatea ez da berez sortzen edo desagertzen. Herritarren borondatea sustatu ez ezik, babestu egin behar da. Beharrezkoa da euskararen beraren erakarmena bultzatzea, euskararen prestigioa areagotzea eta gizarte osoaren inplikazioa indartzea.

Ez gaitu, langintza honetan, eginkizunaren neurriak izutzen.

Elkarren errespetuan eta elkartasunean egin behar dugu aurrera euskararen normalizazioan ere, eta, ahal dela, inor atzean utzi gabe.

Horretarako gizarte osoaren helburu bilakatu behar da euskararen erabilera areagotzea.

Funtsezkoa da euskara erabil dezaketenek euskara ohikotasunez erabiltzea; funtsezkoa familiaren baitan gurasoek haurrei euskara transmititzea; funtsezkoa euskara erabiltzeko aukerak orokortzeraino zabaltzea.

Baina hori guztia funtsezkoa izanik ere, bada ezinbesteko beste zerbait: elebakarrek ere euskararen hautua egin dezaketenen jarduna errazteko ez

ezik, bultzatzeko jarrera bereganatu behar dute, progresiboki eta konbentzimendu osoz.

Jarrera hori orokortuzat jo genezakeen egunean, esaten hasi ahal izango genuke, euskararen normalizazio eta hizkuntza bizikidetzaren bidean gehiago dugula ibilia, ibiltzekoa baino.

Bide horretan, Eusko Jaurlaritzak konprometitu ditu hainbat ekimen X. legealdirako gobernu programan. Urrutira gabe, Jaurlaritzaren legealdi honetako hamalau Plan Estrategikoen artean aurreikusi dugu Euskararen Agenda Estrategikoa, legealdirako sailarteko egitasmo integrala izango dena.

Izan ere, ezinbestez txertatu behar dugu euskara gure ekimen estrategikoen muin-muinean.

Eginkizun horretan gidatuko gaitu, hain zuzen ere, Euskararen Agenda Estrategikoak.

Euskara 21en printzipioak eta jarraibideak, eta ESEP bera izango ditu oinarrian Euskararen Agenda Estrategikoak.

Herritar guztien hizkuntza eskubideak babesteko, euskara hiztunen erkidegoari jarraipena emateko eta euskararen bizi-indarra sendotzen jarraitzeko egitasmoak jasoko ditugu Euskararen Agenda Estrategikoan.

Badakit funtsezkoa dela euskara erabiltzeko aukerak sortu eta zabaldu ez ezik, aukera horiek egunerokoan baliatzea.

Gutariko bakoitza dago langintza horretara deiturik.

Eta, jakina, **Jaurlaritzari dagokio bere jardunean urrats nabarmenak ematea euskararen erabilerari dagokionez.**

Ari gara ematen eta gehiago emango ditugu, hori da nire konpromisoa. Bai baitakigu zein den euskarak biziberritzen jarraitzeko behar-beharrezkoa duen ia gauza bakarra: erabilia izatea.

Prest gaude, irrikaz, Euskararen Aholku Batzorde honen lanetan parte hartzeko.

Zuen iritziak, aholkuak, kritikak, iradokizunak nahi eta behar ditugu. Aintzakotzat hartu eta bideratzeko.

Arrakasta opa diezaiogun elkarri, hortaz, gure eginkizunean.

Asko baitu irabazteko euskal gizarteak hizkuntza bizikidetzaren aldeko prozesuan.

Hasi aurretik har ezazue nire esker ona zuen jarrera eta ekarpenengatik, etapa, aldi eta garai berri honetan.

Mila esker, benetan.

CONSEJO ASESOR DEL EUSKERA

INTERVENCIÓN DEL LEHENDAKARI

Lehendakaritza, 28/06/2013

Buenos días:

Me complace darles la bienvenida a la primera sesión plenaria que celebrará el Consejo Asesor del Euskara en la presente legislatura, en este caso, en la sede de Lehendakaritza.

Es para mí especialmente alentadora la disposición que muestran al compartir sus conocimientos y al trabajar conjuntamente en favor del euskera.

A su vez, me llena de esperanza saber que la sociedad espera resultados fructíferos del trabajo del Consejo Asesor del Euskara.

Hoy, como presidente del consejo, me acuerdo de la época en la cual fui miembro del mismo y de la labor que realizamos. Ahora vuelvo feliz para compartir este esfuerzo con ustedes.

Las raíces del Consejo Asesor del Euskara se encuentran en la Ley de normalización del uso del euskera de 1982 y, tras adaptarse a diferentes tiempos y situaciones, ha llegado hasta nuestros días gozando de buena salud y con fuerza para seguir trabajando.

Numerosas iniciativas cruciales para nuestra lengua se han basado, apoyado e impulsado a través de la labor del Consejo Asesor del Euskara.

- En primer lugar, merece una mención especial el Plan General de Promoción del Uso del Euskera, aprobado por este Consejo y el Consejo de Gobierno en 1998, como un marco amplio que puso a la normalización del euskera en el camino del desarrollo sostenible.

- Otro de los hitos importantes fue el proceso de reflexión «Euskara 21», llevado a cabo entre 2008 y 2009 y que estableció las bases de la política lingüística de principios del siglo XXI.

Fue un proceso ejemplar, puesto que, junto con los desarrollos de la ley de 1982 y de los modelos lingüísticos del sistema educativo, fue el espacio de reflexión que logró el mayor grado de acuerdo y sus conclusiones se aprobaron incluso en el Parlamento Vasco.

Hoy, quiero expresar claramente ante ustedes que el actual gobierno utiliza como guías para establecer su política lingüística las bases, principios, prioridades y líneas de trabajo generales del proceso Euskara 21.

- En ese sentido, existe un importante eslabón que une directamente el pleno de hoy y los trabajos anteriores del Consejo Asesor del Euskara: el Plan de Acción para la Promoción del Euskera, aprobado por este consejo en 2012.

A pesar de no poder extenderme, no me gustaría dejar sin mencionar la orientación, los criterios y las instrucciones que ha ofrecido este consejo en varios ámbitos, por ejemplo, la reflexión sobre el futuro de la euskaldunización de adultos, los criterios básicos que se reunieron en el programa marco LanHitz o la reflexión eficaz sobre los medios de comunicación en euskera y la forma de promocionarlos.

También, la reflexión acerca de los esfuerzos para aunar el euskera y las tecnologías de la información y comunicación o el extenso trabajo terminológico y toponímico.

Estamos llevando a cabo un proceso para promover el euskera que sirve de referencia en todo el mundo.

Es resultado del esfuerzo realizado por cada uno de nosotros y la sociedad vasca en general y, especialmente, de la generosidad para lograr un acuerdo.

El modelo que nos proponemos, en primer lugar, a nosotros mismos y, después, a la sociedad vasca así como al mundo entero se ha construido sobre la base de una responsabilidad compartida.

Ese modelo necesita de todos nosotros.

Nos hemos reunido aquí por la elección política-ideológica y lingüística de cada uno de nosotros, aunque sin dejar de lado el valor de lo aprendido en conjunto.

Sin embargo, sabemos qué lugar ocupan los factores fundamentales para la promoción del euskera: el suficiente estatus legal, una política lingüística eficaz y provista de recursos y la voluntad y la adhesión de la ciudadanía.

Esta última es especialmente necesaria, puesto que nuestra intención es que esa voluntad nos lleve en un futuro a reforzar y difundir el apego hacia el euskera.

Asimismo, somos conscientes de que la base más sólida de las políticas lingüísticas públicas es el acuerdo y, cómo no, que el partido de la cohesión social también se juega en el campo de la convivencia lingüística.

Mientras avanza hacia ese objetivo principal, el Gobierno Vasco ve claro que el conjunto de la sociedad y, por tanto, sus representantes políticos cuentan tanto con deberes como con responsabilidades, ya que la principal obligación de una sociedad que cuenta y desea contar con dos lenguas es mantener el equilibrio entre ellas.

La situación de bilingüismo actual es desequilibrada, por lo que tenemos que seguir trabajando hacia el equilibrio.

Debemos garantizar la igualdad de oportunidades también en el ámbito lingüístico, ya que queremos una sociedad que avanza firmemente hacia el respeto verdadero hacia la elección lingüística de cada uno.

Para ello, debemos continuar avanzando para conseguir una sociedad formada por ciudadanos bilingües, aunando valentía y prudencia en proporciones adecuadas.

Tengamos siempre en mente que el Consejo Asesor del Euskera puede realizar una gran aportación para lograr ese acuerdo.

La política lingüística debe atender a dos criterios para resultar válida: que sea válida para seguir avanzando y que la apruebe una amplia mayoría de la sociedad.

En el actual contexto de globalización, resulta imposible impulsar lenguas que no cuentan con un gran poder económico, cultural y mediático, si no es con el apoyo de la ciudadanía.

Sin embargo, esa voluntad no es intrínseca y no desaparece sin razón. Se debe promover y defender: se debe impulsar la capacidad de atracción del euskera, incrementar su prestigio y promover la implicación del conjunto de la sociedad.

La dimensión de esta tarea no nos asusta.

Debemos promover la normalización del euskera desde el respeto y la solidaridad, y tratando de no apartar a nadie.

Así, debemos tratar de incrementar el uso de del euskera se convierta en un objetivo común.

Es esencial que los que conozcan nuestra lengua la utilicen habitualmente, que los padres y madres se la transmitan a sus hijos e hijas, así como ampliar las oportunidades de utilizarla, hasta llegar a generalizarla.

Y también existe otro factor imprescindible: las personas monolingües deberían mostrar poco a poco y con convencimiento una actitud positiva para impulsar el euskera y para facilitar el uso de quienes lo hayan elegido.

El día en el que esa actitud esté generalizada, podríamos comenzar a decir que nos queda menos por recorrer de lo que hemos recorrido en el camino de la normalización y la convivencia.

El Gobierno Vasco ha dedicado varias iniciativas del programa para la 10ª legislatura a esa causa. Sin ir más lejos, entre los catorce planes estratégicos

del gobierno para esta legislatura, se encuentra la Agenda del Euskera, un proyecto integral e interdepartamental.

El euskera debe incluirse en el centro de nuestras iniciativas estratégicas y la Agenda Estratégica del Euskera nos ayudará en esa labor.

La agenda se basa en los principios y las pautas de Euskara 21 y el mismo Plan de Acción para la Promoción del Euskera.

La formarán varios proyectos, de cara a proteger los derechos lingüísticos de toda la ciudadanía, dar continuidad a la comunidad de vascoparlantes y seguir reforzando el euskera.

Sé que resulta imprescindible que, además de crear y extender las oportunidades para utilizar el euskera, se aprovechen en el día a día.

Todos nosotros estamos convocados para eso.

Por supuesto, **el Gobierno Vasco debe dar pasos firmes en cuanto al uso del euskera.**

Estamos en ello y seguiremos avanzando. Ese es mi compromiso. Somos conscientes de que se podría decir la promoción del euskera precisa de un único elemento: el uso.

Estamos deseando participar en el trabajo del Consejo Asesor del Euskara.

Deseamos y necesitamos escuchar sus opiniones, consejos, críticas y sugerencias. Las consideraremos y pondremos en marcha.

Por consiguiente, deseémonos éxito.

La sociedad vasca ganaría mucho mediante el proceso de la convivencia lingüística.

Antes de comenzar, quiero expresarles mi agradecimiento por su actitud y contribución en esta nueva etapa, época y era.

Muchas gracias, de verdad.